



## 2/2023 TXOSTENA, OTSAILAREN 22KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU- BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.

### GAIA: POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALARI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA

#### I.- AURREKARIAK.

2023ko urtarrilaren 26an, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak txosten-eskaera bat egin zuen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretu-proiektua dela eta.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG\_DEC\_2683/21\_02).

#### II. – EDUKIA.

Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2021eko martxoaren 9ko Aginduaren bidez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura funtzionalari eta organikoari buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Agindu horrek, besteak beste, hau ebazten du:

«**LEHENENGOA. Prozeduraren hasiera agintzeko xedea eta eskumena:** Agindu honen xedea da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretua egin eta onesteko prozedurari hasiera ematea».

Era berean, Agindu horrek honako hau adierazten du xedapen-zatian, **SEIGARRENA** apartatuan: «**Egin beharreko izapideak eta txostenak.** 6.- Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak eskatuko dira, izapide hori arautzen duten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako txosten eta irizpen hauek bildu behar dira:

*Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).1 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko».*

Horren arabera, bidezkozat jo da orain egin den txostena eskatzea, sektore publikoko kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten proiektuaren alderdien arabera mugatuta.

### **III.- GOGOETA JURIDIKOAK.**

#### **1.- Aholku Batzordearen eskumena.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).1 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskumen hau esleitzen dio: nahitaez informatzea Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.

Halaber, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretu horren 30.2.a) artikuluan, honako eginkizun hau esleitzen zaio, besteak beste, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari: xedapen-proiektuei buruzko aholkularitza-eginkizuna, betiere kontratazioaren alorrekoa bada eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak sortzea edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko entitateen egitura organikoa eta funtzionala arautzea badute xede.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomo bat da, administrazio-izaerakoa, nortasun juridiko propioa eta jardun-gaitasun osoa dituen dagozkion xedeak betetzeko, eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen indarrez eratu zen. Aipatu legearen 20. artikulua eta hurrengo bidez eratu zen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, administrazio-izaerakoa, nortasun juridiko propioa eta jardun-gaitasun osoa dituen dagozkion xedeak betetzeko, eta segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago, haren egitura organikoa ezartzen duen dekretuak xedatzen duen moduan.

Halaber, aipatu legearen 21.3 artikulua arabera, bere jardueraren eremuari dagokion araudi espezifikoak arautuko du akademia horren jardueraren, bereziki EAEko polizia buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak, lege honek

beronek eta horretarako onartuko den antolakuntza- eta jarduera-araudiari buruzko erregelamenduak. Administrazio-ahalak baliatzerakoan, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautuko du haren jarduera.

Horrelako araei dagokien bezala, dekretu-proiektuaren xedapenek antolaketa-eduki handia izaten dute, eta, ildo horretan, azpimarratzekoak dira kontratazioaren arloari lotutako alderdiak, dekretu-proiektuaren 7.3.h) eta 13.k) artikuluetan jaso eta arautzen direnak.

Horri jarraikiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Legearen 27.a).1 eta 30.2.a) artikuluen babesean, txosten hau ematen da, aipaturiko arauetan xedatutakoa betetzeko. Txosten honek soil-soilik eragiten die proiektuan sektore publikoaren kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten alderdiei, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoaren gai propioetara mugatzen baita.

## **2.- Kontratazioaren arloarekin lotutako esparruak.**

Hona proiektuan kontratazioaz diharduten bi manu:

*«7. artikulua. – Akademiaren Zuzendaritza Nagusia.*

*3. – Akademiaren Zuzendaritza Nagusia Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren legezko ordezkaria da, eta haren titularrari dagozkio Akademiako zerbitzuen eta jardueren zuzendaritza, kudeaketa, koordinazioa eta ikuskapena, baita erakunde autonomoari agintzen zaizkion helburuak betetzeko gainerako eginkizun guztiak ere, baldin eta eginkizun horiek ez bazaizkie beste organo batzuei esleitu. Bereziki hauek:*

*h) Ordenamendu juridikoak erakunde autonomoei kontratazio-organogisa esleitzen dizkien eginkizunak eta ondarearen gainean ematen dizkien eskumenak baliatzea, baldin eta dekretu honetan eginkizun eta eskumen horiek beste organo batzuei esleitzen ez bazaizkie. Era berean, kontratazioaren arloko errekurtsio berezia ebaztea egokituko zaio, bai eta kontratazioaren alorrean behin-behineko neurriak hartzea ere.*

*13. artikulua.– – Araubide Juridiko, Kudeaketa Ekonomiko eta Gai Orokorraren Dibisioa.*

*Administrazio eta Zerbitzu Zuzendaritzaren menpe eta haren gainbegiradapean, Araubide Juridiko, Kudeaketa Ekonomiko eta Gai Orokorren Dibisioaren eginbeharra da zuzendaritza horren eskumeneko jardun-arloak kudeatzea eta, zehazki, eginkizun hauek:*

k) Akademiaren ondare-espeditenteak kudeatzea, bai eta kontratazio-espeditenteen kudeaketa ere, baldin eta Akademia haien kontratazio-organoa bada, baina betiere Segurtasun Saileko kontratazio-mahaiaren berezko ahalmenak urratu gabe».

Kontratazio-organoren edo -organoen egituraketa Sailari berari dagokion antolaketa-gaia da, eta, beraz, aipatutako xedapenak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren xedapenekin.

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 6. artikuluan honakoa xedatzen du:

*«Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organook; eta erakunde autonomoetan eta Administrazio Orokorrean ez beste erakundeetan, berriz, ordezkaritza nagusia duten organoak, salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan, edo erakunde horiek sortzeko edo haien funtzionamendua zehazteko arauetan»*

Ondorioz, ez du eragozpenik sortzen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretu-proiektuaren idazkerak, ez eta edukiak ere. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren manuak betetzen ditu.

#### **IV.- ONDORIOA**

Aurreko guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen dugu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretu-proiektuaren edukiaz.